

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, martxoaren 24koa. Onestea Arabako zerga araudia egokitzea Estatuak hainbat zergatan egindako aldaketetara

Euskal Autonomia Erkidegoarekin egindako Kontzertu Ekonomikoak (maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutakoak) 21., 26. eta 33. artikuluetan xedatzen duenaren arabera, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga, balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak zerga itunduak dira, eta Estatuak une bakoitzean xedatzen dituen arau funtsezko eta formalen bidez arautuko dira, berariazko gai batzuk izan ezik.

Otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege-Dekretuak (presako neurriena eta zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen baitira Europar Batasuneko zenbait zuzentarau honako eremu hauetan: sektore jakin batzuetako kontratazio publikoa, aseguru pribatuak, pentsio-planak eta -funtsak, tributuen eremua eta auzi fiskalak) hainbat aldaketa eragin ditu ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren, balio erantsiaren gaineko zergaren eta zerga berezien araudian.

Hori dela eta, Arabako Lurralde Historikoko zerga araudiari aurrean aipatutako xedapen orokorretan ezarritako aldaketak txertatu behar zaizkio.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 8. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehena. Aldaketa: 21/2014 Foru Araua, ekainaren 18koa, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena

21/2014 Foru Araua, ekainaren 18koa, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena, aldatzen da, laugarren xedapen gehigarria, hain zuzen ere; honela gelditzen da:

“Laugarrena: Adiskidetasunezko prozedurak.

1. Nazioarteko hitzarmen edo itunben bat aplikatzean beste estatu batzuetako administrazioekin sortzen diren gatazkak bertan ezarritako adiskidetasunezko prozedurak aplikatuz ebatziko dira. Hala ere, horrek ez du eragozten bidezko errekursoak eta erreklamazioak jartzeko eskubidea.

2. Xedapen gehigarri honetan ezartzen dena honako hauei ere aplikatuko zaie: errenten (eta behar den kasuetan ondarearen) gaineko zergapetze bikoitza ezabatzeko nazioarteko itun eta hitzarmenen ondorioz Europar Batasuneko beste estatu batzuekin sortzen diren auziak konpontzeko mekanismoei (Kontseiluaren 2017ko urriaren 10eko 2017/1852 Zuzentaraua (EB), Europar Batasuneko zergen arloko auziak konpontzeko mekanismoei buruzkoa).

3. Adiskidetasunezko prozeduretan bi administrazioen artean lortzen diren akordioak irmo bihurtutakoan aplikatuko dira.

Hori dela eta, akordioa honako egun honetan bihurtzen da irmo: agintaritza eskudunek ukitutako gainerako estatueta agintaritza eskudunei pertsona interesdunek bertan ezartzen dena onartzen dutela eta, behar denean, adiskidetasunezko prozedura aplikatzen den zerga betebeharraren elementuen inguruan errekurtsioa aurkezteko eskubideari uko egiten diotela adierazteko bidaltzen dieten azken jakinarazpena jasotzen den egunean. Dagoeneko errekurtsioen bat aurkeztu bada, akordioa honako kasu honetan baino ez da irmo bihurtuko: ukitutako pertsonak frogatzen badie ukitutako gainerako estatueta agintaritza eskudunei neurriak ezarri direla adiskidetasunezko prozedura aplikatzen den zerga betebeharraren elementuen inguruko errekurtsioa gelditzeke.

4. Hori dela eta, araudian ezarriko da adiskidetasunezko prozedurak ebazteko eta haien ondoriozko akordioak aplikatzeko prozedura.

5. Akordioen kontra ezin da jarri errekurtsio; hala ere, akordioa aplikatzeko ematen diren administrazio egintzen kontra ezarritako errekurtsioak jarri ahal izango dira.

6. 1. Adiskidetasunezko prozeduretan, zorraren sarrera automatikoki etengo da interesdunak hala eskatuz gero, baldin eta honako hauek bermatzen badira (arau bidez ezarriko da nola): zorraren zenbatekoa eta etendura eskatzen den unean bidezkoak diren errekareruak.

Ezin da eten zorraren ordainketa, aurreko paragrafoan ezarri den bezala, etendura bide administratiboan edo jurisdikzionaletan eska daitekeen bitartean.

2. Aurreko zenbakian aipatzen den etendura automatikoa lortzeko honako berme hauek bakarrik onartuko dira:

a) Diruaren edo balio publikoen gordailua.

b) Kreditu entitate batek edo elkarrekiko bermerako sozietate batek emandako abal edo fidantza solidarioa edo kauzio aseguruaren ziurtagiria.

3. Adiskidetasunezko prozedurak zerga zor guztiari eragiten ez badio, adiskidetasunezko prozedurak eragindako zenbatekoaren sarrera soilik eten ahal izango da.

7. Baldin eta, 1. idatz zatian xedatzen denarekin bat etorritik, aldi berean egiten badira nazioarteko hitzarmen edo itunetan arautzen den adiskidetasunezko prozedura bat eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek V. Tituluan arautzen dituen berrikuspen prozeduretako bat, azken hori bertan behera utziko da harik eta adiskidetasunezko prozedura amaitu arte, baina zerga betebeharraren elementuei dagokienez soilik.

8. Ezarritako zehapen baten ondorioz ezin bada hasi adiskidetasuneko prozedurako bitartekaritza fasea, 7. idatz zatian ezartzen dena ez da aplikatuko kasu honetan: zehapenaren kontrako errekurtsioa aurkeztu bada administrazio bidean. Halako kasuetan, ezin izango da hasi adiskidetasunezko prozedurako bitartekaritza harik eta zehapenaren inguruko ebazpen irmoa eman arte administrazio bidea edo bide judizialean.

9. 90/436/CEE Hitzarmenaren itzalpean izapidetzen diren prozeduretan, administrazio bidean edo administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurtsio edo erreklamazioen bat aurkeztu bada 10. idatz zatian aipatzen diren zehapenen kontra, adiskidetasunezko prozeduraren izapideak bertan behera geldituko dira lehen errekurtsioa aurkeztu denetik zehapenaren inguruko ebazpen irmoa eman arte administrazio bidean zein bide judizialean.

Aurreko paragrafoan aipatzen den adiskidetasunezko prozedura ezin izango da hasi (eta hasita badago, amaitu egingo da) kasuan kasuko enpresei zehapen irmoa ezarri bazaie xedapen honetako 10. idatz zatian ezartzen denarekin bat etorritik.

10. 8. eta 9. idatz zatietan ezartzen denari dagokionez honako hauek izango dira zehapenak:

a) Ogasun Publikoaren kontrako delituengatik (Zigor Kodea, 305. eta 305 bis artikulua) ezartzen diren zigorrak;

b) 195., 196. eta 197. artikuluetan aipatzen diren arau hausteengatik ezartzen diren zehapenak, baldin eta arau haustean daturen bat ezkututzen bada, iruzurra erabiltzen bada edo tar-teko pertsona batez baliatzen bada, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak xedatzen duenarekin bat etorritik;

c) Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietatearen gaineko zergarenak, 46. artikuluan arautzen dituen arau hausteengatik ezartzen diren zehapenak, baldin eta arau haustean daturen bat ezkututzen bada edo iruzurra erabiltzen bada, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak xedatzen duenarekin bat etorritik. Hori dela eta, inguruabar horien aipamenak transferentzia prezioen dokumentazioaz egintzat hartu behar dira.

c) letran ezartzen dena gorabehera, 8. eta 9. idatz zatietan ezartzen denari dagokionez ez da zehapentzat hartuko dokumentazio osoa ez aurkezteagatik ezartzen den zehapena, baldin eta horren ondorioz ez bada asko zailtzen merkatu balioa zehaztea.

11. Xedapen honetan aipatzen diren prozedurek beren araudi berezia dute; nolana ere, zergen arloko arautegia ere aplikatuko zaie, osagarri modura, bidezkoa denean.

12. Arabako Foru Aldundiak edukiko du eskumena aholku batzordearen eraketaren eta jardunaren inguruko egitekoetan aritzeko (egiteko horiek arautegian zehaztuko dira).

13. Adiskidetasunezko prozedura baten esparruan eratzen den aholku batzordeko edo konponketarako batzorde alternatiboko kideek isilpean gorde beharko dituzte egiteko horretan ari direla ezagutzen dituzten zergen arloko datuak, erabat eta zorrotz, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 92. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik. Bete-behar hori haustek legezko erantzukizunak ekar ditzake Arabako araudiaren arabera.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, behar den kasuetan ukitutako beste estatuetako barne araudia aplikatu ahal izango da, bakoitza bere jurisdikzioan."

Bigarrena. Aldaketa: 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 19koa, balio eran tsiaren gaineko zergarena

Bat. 3. artikuluko bigarren idatz zatiko 1. zenbakiko a) eta b) letrak aldatzen dira eta honela gelditzen dira:

"a) Aduana Batasunean bildurik ez dauden lurraldeei dagokienez: Alemaniako errepublika federalean, Helgoland uhartea eta Büsingen lurraldea; Espainiako erresuman, Ceuta eta Melilla; eta Italiako errepublikan, Livigno."

b) Negozioren kopuruaren gaineko zergen harmonizaziotik salbuetsitako lurraldeei dagokienez: Espainiako erresuman, Kanaria uharteak; Frantziako errepublikan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 349. artikuluan eta 355. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen diren lurralde frantziarrak; Errepublika heleniarrean, Athos mendia; Erresuma Batuan, Kanaleko uharteak; Italiako errepublikan, Campione d'Italia eta Lugano lakuko nazio urak; Finlandiako errepublikan, Aland uharteak."

Bi. 9. artikuluko 3. zenbakiko lehenengo paragrafoa aldatzen da eta honela gelditzen da:

"3. Subjektu pasibo batek bere enpresako gauzazko ondasun bat beste estatu kide bati transferitzea, ondasuna enpresak aipatu estatuan dituen premiei lotzeko. Ez dira halakotzat hartuko arau honek 9 bis artikuluan ezartzen duenaren arabera ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan egiten diren transferentziak."

Hiru. 9 bis artikulua berria gehitzen da; hona testua

"9 bis artikulua. Ondasunak kontsignan saltzeko akordioa.

Bat. Arau honek xedatzen duenaren ondorioetarako, ondasunak kontsignan saltzeko akordio da honako baldintza hauek betetzen dituen:

a) Saltzaileak (edo hirugarren batek haren kontura) ondasunak Batasuneko beste estatu batera bidaltzea edo garraiatzea, gero, heldu ondoren, gaitutako beste enpresari edo profesional batek eskuratzeko bien arteko aurreko akordio baten arabera.

b) Ondasunak bidaltzen edo garraiatzen dituen saltzaileak ez edukitzea bere jarduera ekonomikoaren egoitza ez establezimendu iraunkorra ondasunak heltzen diren Batasuneko estatuan.

c) Ondasunak eskuratuko dituen enpresaria edo profesionala balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako identifikatuta egotea ondasunak heltzen diren Batasuneko estatuan, eta saltzaileak eskuratzailaren identifikazio fiskaleko zenbakiaren eta izenaren (izen-abizenak edo sozietate izen osoa) ezagutzea bidalketa edo garraio hasten denean.

d) Saltzaileak ondasunen bidalketaren berri ezartzea bai arauz agintzen den erregistro liburuan, bai arau honetako 164. artikuluko lehen idatz zatiko 5. zenbakian aipatzen den laburpen aitortuenean, arauz ezartzen den bezala.

Bi. Baldin eta, kontsignan saltzeko akordio baten esparruan ondasunak Batasuneko estatu batera heltzen direnetik hamabi hilabete pasatu baino lehen, aurreko idatz zatiko c) letran edo hurrengo idatz zatiko bigarren paragrafoko a') letran aipatzen den enpresariak edo profesionalak ondasunak erabiltzeko ahala eskuratzen bada, zergaren aplikazio eremuan honako bi eragiketako bat gertatu dela ulertuko da (kasuan kasukoa):

a) Saltzailearen ondasun ematea, arau honetako 68. artikuluko bigarren idatz zatiko 1. zenbakiko A) letrako lehen paragrafoan arautzen dena; arau honek 25. artikuluan ezartzen duen salbuespena aplikatu ahal izango zaio.

b) Enpresari edo profesionalaren Batasunaren barruko ondasun eskuraketa, arau honetako 15. artikuluko lehen idatz zatiko b) letran arautzen dena.

Hiru. Baldin eta, ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan, aurreko idatz zatian aipatzen den aldiaren aurreko lehenengo idatz zatian ezartzen diren baldintzetako bat betetzen ez bada, arau honetako 9.3 artikuluan aipatzen den ondasun transferentzia gertatu dela ulertuko da, hau da:

a) Ondasunak ez baditu eskuratzen bidali zaizkion enpresariak edo profesionalak.

b) Ondasunak ez badira bidaltzen ez garraiatzen ondasunak kontsignan saltzeko akordioan ezarritako Batasuneko estatura.

c) Ondasunak ezabatzen edo galtzen badira edo lapurtzen badituzte.

Nolanahi ere, aurreko lehen idatz zatiko baldintzak betetzat joko dira aldi horretan honako hauek gertatzen badira:

a') Aurreko lehen idatz zatiko c) letran aipatzen den enpresari edo profesionalaren ordezkioak letra horretan ezartzen diren baldintza guztiak betetzea.

b') Ondasunak erabiltzeko ahala ez eskualdatzea eta ondasunak bidalketa edo garraioa hasi den Batasuneko estatura itzultzea.

c') Saltzaileak a') eta b') letratan azaltzen diren inguruabarrak ezartzea arauz agintzen den erregistro liburuan.

Lau. Baldin eta, kontsignan saltzeko akordio baten esparruan, eta aurreko lehen idatz zatiko baldintzak betetzen direla, ondasunak Batasuneko estatu batera heltzen direnetik hamabi

hilabete pasatu eta hurrengo egunean 9 bis artikuluko lehen idatz zatiko c) letran edo hirugarren idatz zatiko bigarren paragrafoko a') letran aipatzen den enpresariak edo profesionalak ondasunak erabiltzeko ahala eskuratzen ez badu, arau honetako 9.3 artikuluan aipatzen den ondasun transferentzia gertatu dela ulertuko da.

Bost. Ondasunak kontsignan saltzeko akordioa sinatzen duten enpresariak edo profesionalak eta hasieran ondasunak jaso behar dituztenen ordezkoei horrelako eragiketen erregistro liburua arteztu behar dute (arauz ezarriko da nola)."

Lau. 15. artikuluko lehen idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da

"Bat. Batasunaren barruko ondasun ematea da:

a) Eskuratzailereantz zergaren aplikazio lurraldera Batasuneko beste estatu batetik eskuratzailereak, eskuratzailereak berak edo hirugarren batek aurreko bietako baten izenean bidaltzen edo garraiatzen dituen gauzako ondasun higigarriak erabiltzeko ahala lortzea.

b) Arau honek 9 bis artikuluko bigarren idatz zatian ezartzen duen arabera ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan, gauzako ondasun higigarriak erabiltzeko ahala lortzea."

Bost. 25. artikuluko lehen idatz zatia aldatzen da eta laugarren idatz zatia gehitzen zaio. Hona

"Bat. Arau honek 8. artikuluan zehazten dituen ondasun emateak, baldin eta saltzailereak, eskuratzailereak edo hirugarren batek aurreko bietako baten izenean eta kontura bidaltzen edo garraiatzen baditu Batasuneko beste estatu bateko lurraldera, eskuratzailere enpresaburua edo profesionala bada, edo hala ez diharduen pertsona juridikoa, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako identifikazio fiskaleko zenbakia badauka, Espainiako Erresuma ez Batasuneko beste estatu batek emana, eta zenbaki horren berri eman badio saltzailerei.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, baldintza hau bete behar da: saltzailereak eragiketa horiek sartu behar ditu arau honetako 164. artikuluko lehen idatz zatiko 5. zenbakian aipatzen den laburpen aitopenean, arauz ezartzen den bezala.

Idatz zati honetan azaltzen den salbuespena ez zaie aplikatuko honako ondasun emate hauei: ematearen xede den Batasuneko estatuan Batasunaren barruko ondasun eskuraketak arau honetako 14. artikuluko 1. eta 2. apartatueta bildutako irizpideak direla bide zerga honen kargapean ez dituzten pertsonentzako ondasun emateei.

Halaber, salbuespen hau ondasun erabili, arte objektu, antigoaleko objektu eta bilduma objektuen araubide berezian dauden ondasun emateei ere ez zaie aplikatuko zaie (araubide hori arau honen IX. Tituluko IV. Kapituluan ezartzen da)."

"Lau. Ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan, eta arau honetako 9 bis artikuluko bigarren idatz zatian ezartzen diren baldintzak betetzen direla, egiten diren ondasun emateak."

Sei. 68. artikuluko bigarren idatz zatiko 1. zenbakia aldatzen da eta honela geratzen da

"1. A) Eskuratzailerearen esku jartzeko saldu edo garraiatu behar diren gauzako ondasun higigarrien emateak, salmenta edo garraioa aipatu lurraldean hasten denean, artikuluko lehen idatz zatian xedatzen dena eragotzi gabe.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, inportatzeko diren ondasunen bidalketa edo garraioa hasten den lekua hirugarren herrialde batean badago, inportatzailereak egiten dituen horien emateak eta, hala denean, ondoko eskuratzailereak egiten dituztenak zergaren aplikazio eremuan egintzat joko dira.

B) Aurreko A) letrako lehen paragrafoan xedatzen denaren ondorioetarako, ondasunak hainbat aldiz ematen badira Batasuneko estatu batetik beste batera bidalita edo garraiatuta,

zuzenean, hau da, lehen hornitzailetik kateko azken eskuratzailleak jaso arte, bidalketa edo garraioa bitartekariaren alde egindako ondasun ematearekin bakarrik egongo da lotuta.

Hala ere, bitartekariak Espainiako Erresumak balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako emandako identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazten badio hornitzaileari, bidalketa edo garraioa bitartekariak egindako ondasun ematearekin bakarrik egongo da lotuta.

Aurreko bi paragrafoen ondorioetarako, hauxe da bitartekaria: enpresaria edo profesionala, lehen hornitzailea ez dena, ondasunak zuzenean edo beraren izenean eta kontura ari den hirugarren baten bitartez bidaltzen edo garraiatzen dituen.

Zapzi. 75. artikuluko lehen idatz zatiko 8. zenbakia aldatzen da eta honela geratzen da

“8. Arau honetako 25. artikuluan aipatzen diren ondasun emateen kasuan (aurreko zenbakian aipatzen direnak ez beste guztiak) zergaren sortzapena hauetako batean:

a) Eskuratzaillearentzako bidalketa edo garraioa hasten den hilaren ondoko hilaren 15ean.

b) Arau honetako 9 bis artikuluko bigarren idatz zatian ezartzen den bezala egiten diren ondasun emateen kasuan, ondasunak eskuratzaillearen esku jartzen diren hilaren ondoko hilaren 15ean.

Aurreko a) eta b) letretan ezartzen denaren ondorioetarako, baldin eta egun hori baino lehen eragiketari dagokion faktura egiten bada, zergaren sortzapena faktura egiten den egunean gertatuko da.

c) Arau honetako 9 bis artikuluko hirugarren idatz zatian aipatzen diren baldintzak betetzen direnean.

d) Arau honetako 9 bis artikuluko laugarren idatz zatian ezartzen den 12 hileko epealdia amaitzen den egunaren biharamunean.”

Zortzi. 84. artikuluko lehen idatz zatiko 2. zenbakiko c') letra aldatzen da eta honela geratzen da

“c') Arau honetako 21. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan edo 25. artikuluan ezartzen denaren arabera zergatik salbuetsita dauden ondasun emateetan, eta artikuluko honetan aipatzen diren zergapeko ondasun emateetatik salbuetsita ez daudenetan.”

Bederatzi. 164. artikuluko lehen idatz zatiko 5. zenbakia aldatzen da eta honela geratzen da

“5. Aldian-aldian, edo Administrazioak eskatuta, hirugarren pertsonekin egindako eragiketa ekonomikoei buruzko informazioa aurkeztea, bai eta Batasunaren barruko eragiketen laburpen aitorpena ere.”

Hirugarrena. Aldaketa: 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 16koa, zerga bereziak arautzen dituena.

Otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko 4. artikuluko 7. eta 30. idatz zatiak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“7. “Batasuna” eta “Batasuneko lurraldea”: Batasuneko kide diren estatuetako lurraldeak, Europako Erkidegoa Eratzeko Ituneko 299. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, salbuespen hauekin:

- Alemaniako Errepublika Federalean: Helgoland uhartea eta Büsingen-eko lurraldea.
- Frantziako Errepublikan: itsasoaz bestaldeko departamentuak.
- Italiako Errepublikan: Livigno.
- Finlandiako Errepublikan: Aland uharteak.
- Erresuma Batuan: Kanaleko uharteak.

- Espainiako Erresuman: Kanaria uharteak, Ceuta eta Melilla.”
- “30. “Hirugarren lurraldea”:
- a) Batasuneko aduana eremuaren barruan dauden lurralde hauek:
 - Kanaria uharteak.
 - Frantziako itsasoaz bestaldeko departamentuak.
 - Aland uharteak.
 - Kanaleko uharteak.
- b) Itunbeneko 299. artikuluko 4. idatz zatian aipatzen diren lurraldeak.
- c) Batasuneko aduana eremuan ez dauden lurralde hauek:
 - Helgoland uhartea.
 - Büsingen-eko lurraldea.
 - Ceuta.
 - Melilla.
 - Livigno.”

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Salbuespena: bigarren idatz zatiko bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren, seigarren, zazpi-garren, zortzigarren eta bederatzigarren puntuetan xedatzen dena 2020ko martxoaren 1ean jarriko da indarrean.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 24a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA